

ORDENANTZA, OLAZTIKO UDALAK KULTUR, HEZKUNTZA, KIROL, GAZTERIA, LAGUNTZA, GIZA ETA GIZARTE XEDEETARAKO EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA

2009.eko martxoaren 18ko 33. NAO n argitaratua

ZIOEN AZALPENA

I.-Olaztiko Udalak badaki zer diren eta baloratzen ditu parte hartzea eta konpromisoa bizitza modernoari loturiko esparru konplexuetan: kultura, elkartasuna, berdintasuna, kirola, boluntarioria, ingurumena eta espazioen eraketa elkarbizitza sozialerako eta kulturen arteko elkarbizitzarako, parte hartze soziala, herritartasuna eraikitzea eta abar.

Udala ohartua da egiten diren jarduerak balio erantsi handia dutela udalerriko gizartearentzat, hala zuzeneko parte hartzaile eta bultzatzaileentzat nola jardueren onuradunentzat. Horregatik, gero eta kontusail handiagoak ematen ditu elkarteetan lana eratzu eta, aldi berean, jardueraren balorazio soziala aitortu beharrez.

II.-Bestalde, publikotasuna, tratu berdintasuna eta bat etortzea dira laguntzak ematean jarraitu beharreko irizpideak; hala dio Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. kapituluak, Nafarroako toki entitateek erakunde publiko eta pribatuei eta partikularrei tokiko eskumenei lotutako zerbitzuak eta jarduerak osatu edo ordeztu beharrez laguntza ekonomikoak eman eta sustatzeko arauak jartzen dituenan.

Xedapen horiek betetzeko, ezinbestekoa da udal arau batzuk jartzea, diru-laguntzak emateko prozedura arautu eta ezartzearen; batetik, aipatutako legeari jarraituko zaio, nahitaez bete beharrekoa baita, eta, bestetik, udalerraren aipatu errealtate berriari.

III.-Horrenbestez, aipatu eremuetan egiten den jarduerak guztira iritsi nahi du Udalaren ordenantza honek eta Administrazioaren jarduerak guztietan agintzen duten printzipio nagusietan oinarritzen da. Printzipio horietako batzuk dira objektibotasuna eta eragimena, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3. artikuluan aipatuak; orobat, diru-laguntzen esparruari dagokionez, berdintasunaren, publikotasunaren eta bat egitearen printzipio arestian aipatuak, gardentasunaren eta objektibotasunaren printzipioekin batera.

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Olaztiko udalerraren esparruan diru-laguntzak emateko irizpideak eta prozedura finkatzea du xede ordenantza honek, eta herritar eta entitateei bermatzea denek baldintza berak dituztela laguntzak eskuratzeko onura publikoko edo interes sozialeko xede jakin bati erantzuten dioten zerbitzu eta jardueretan.

2. artikulua. Udalak pertsona edo entitate publiko nahiz pribatuei dirua nahiz gauzak emateari esaten zaio diru-laguntza, horren xedea baldin bada onura publiko edo interes

sozialeko jarduerak bultzatu edo sustatzea, hala nola bekak, primak, laguntzak, eta laguntza pertsonal, material eta ekonomikoa dakarten gainerako xedapen guztiak.

Printzipio orokorrak

3. artikulua. Honako printzipio gidari hauen arabera kudeatuko dira ordenantza honek aipatzen dituen laguntzak:

1. Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminazio eza eta kontrola.

2. Eraginkortasuna administrazio emaileak finkatutako helburuak betetzean.

3. Eragimena, baliabide publikoak esleitu eta erabiltzean.

4. artikulua. Diru-laguntzen xedeko alor bat edo gehiagoren gainean onesten diren oinarrietan aurreikusitako irizpide, xede eta prozedurei begiraturik eman beharko dira diru-laguntzak.

Oinarriak onetsi aitzin, aginduzkoa izanen da xede horretarako dirua aurreikustea aurrekontuetan.

Onuradunak

5. artikulua. Hona nor diren diru-laguntzak eskatzen ahal dituztenak:

a) Irabazi asmorik gabeko entitate, erakunde eta elkarteak, udalerrian egoitza edo ordezkari iraukorra dutenak.

b) Pertsona fisikoak, jende talde baten ordezkari gisa, baldin eta udalerrian bizi badira, eta ekimenak berariazkoak eta irabazteko asmorik gabeak badira.

Diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriek ezarri ahal izanen dutenez, diru-laguntza publikoak entitate laguntzaile baten bidez ematen ahalko zaizkie onuradunei. Hala bada, lankidetzaz hitzarmena egiten da Udalaren eta entitate laguntzailearen artean, eta hartan arautuko dira entitateak bere gain hartzen dituen baldintza eta betebeharrak. Hitzarmen horrek ez du inondik ere lau urte baino gehiago iraunen.

Diru-laguntzaren xedeko jarduerak

6. artikulua. Diru-laguntza bil dezakete eskaera egiten den urte berean Olaztiko udalerraren barrenean egiten diren jarduerara programatuek, arlo hauetakoak badira:

-Kultura.

-Hezkuntza.

-Kirolak.

-Gazteria.

-Gizarte laguntza.

-Giza laguntza eta/edo garapenerako lankidetzako programak hirugarren munduko herrietan.

-Interes sozialeko jarduerak egiten dituzten entitate irabazi asmorik gabeendako laguntzak.

-Herritarren entitate eta talde irabazi asmorik gabeendako laguntzak, herritarren partaidetzaren arloan.

Banakako ebaluazioaren sistema hautatzen denean diru-laguntza emateko, haren gaineko araudi berariazkoak irizpideak ezartzen ditu eskaerak ebaluatzeke eta ebaluazio horren arabera diru-laguntza handiagoa edo txikiagoa esleitzeko. Espedienteak aurkeztu ahala tramitatu eta ebazten dira, aurrekontuan horretarako dirua dagoen bitartean.

7. artikulua. Hona hemen diru-laguntzarik bil ez dezaketenak:

a) Udalerriaren mugapetik kanpo egiten diren jarduerak, gobernuz kanpoko erakundeei (GKE) emandakoak eta zuzenean lagatakoak izan ezik.

b) Lokalak moldatzea edo eraikinetako beste edozein esku-hartze.

c) Ondasun higiezinaren erosketak.

d) Funtzionamenduaren ondoriozko gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak, etab.).

Prozedura

8. artikulua. 1. Orokorrean, diru-laguntzak emateko prozedura lehia bidez tramitatuko da.

Udalak zenbateko bat finkatuko du urtero aurrekontuan, diru-laguntza bil dezaketen jardueretarako.

Diru-laguntzak eman aitzin, organo eskudunak diru-laguntzen deialdia egin beharko du, eta haiek arautzeko oinarriak onetsi.

Aurrekontuan dagoen dirua aurkeztu diren eskaeren artean banatuko da, honako hauek kontuan hartuta: deialdiaren oinarriak zer jarduera arlo edo esparru aipatzen duen, lortu nahi diren xedek eta horretarako aurrekontuan dagoen kontu-saila. Biltzen diren inguruabarrak aztertu ondoan emanen da, zenbateraino eta zer ehunekotan laguntzen ahal diren zenbatetsi ondoan.

2. Nolanahi ere, beste diru-laguntza batzuk modu zuzenean ematen ahalko dira, horretarako egiaztatzen diren arrazoiak interes publiko, sozial, ekonomiko, hezkuntzako, kultural, zientifiko, humanitario edo bestelakoak direnean, baldin eta,

hartzailea dela-eta, ez badago lehia publikorako aukerarik, diru-laguntzaren xedea aurrera eramateko onuradun bakarra edo onuradun talde bakarra dagoelako.

Kasu hauetan ematen diren diru-laguntzak ere zuzenekoak izanen dira:

- a) Udalaren aurrekontuan berariaz aurreikusita daudenean.
- b) Lege mailako arau batek agintzen badio administrazioari diru-laguntza emateko edo zenbat eman behar duen.
- c) Diru-laguntzaren izaeragatik edo helburuagatik lehiaketa publikoaren deialdirik behar ez denean, edo izaeragatik nahiz helburuagatik publikotasunaren tramitea betetzea ezinezko bada, gauzatzeko gaitasuna duen onuraduna bakarra delako.
- d) Gizarte ongizateko laguntzak; hala nola, larrialdi sozialeko laguntzak eta banakoendako laguntza sozialak.

Atal honetan sartzen dira espetxeratutakoen ahaideen bidaietarako banakako laguntzak, ondoren xedatutakoaren arabera arautuko baitira:

Kontzeptua. Diru-laguntza gisa emanen dira atal honetan azaltzen diren laguntzak, presoan ahaideei bidaien ondoriozko gastuen zati bat ordaintzeko, zigorra betetzen duten espetxeetan bisita ditzaten.

Onuradunak. Laguntzen onuradunak izaten ahal dira:

-Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mugetatik kanpoko espetxeetan dauden presoan ahaideak.

-Preso bakoitzaren ahaide bakar bat izaten ahal da laguntzen onuradun.

-Ezinbesteko baldintza gisa ezartzen da hala ahaide onuradunak nola presoak Olaztin erroldaturik egon beharko dutela gutxienez laguntzak eskatu eta hiru (3) urte lehenagotik.

-Aurrekoa gorabehera, Udalaren Gizarte Ongizateko Batzordeak badu ahalmena sor daitezkeen kasu bereziak aztertu eta erabakiak hartzeko.

Laguntza eskaerekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Eskabide orria, presoaren ahaide onuradunak Udalaren Gizarte Ongizateko Batzordeari zuzendua.

-Eskatzailearen NANaren fotokopia.

-Laguntzen onuraduna den familia unitatearen errenta aitorenaren (PFEZ) fotokopia.

Laguntza ekonomikoa zehazteko baremoa:

-Oro har, laguntza eskatzaile guztiei hilean joan-etorriko bidaia bat diruz lagunduko zaie, Olazti eta espetxearen arteko ibilbideko kilometro bakoitzeko 0,30 euro ordainduz.

-Familia unitatearen errenta LGSren %100 eta %125 artekoa bada, bidaia bat gehiagorako diru-laguntza emanen da hilabeteen: 0,30 euro kilometro bakoitza, joatea eta etortzea.

-Familia unitatearen errentak ez badu LGSren %100 gainditzen, 2 bidaia gehiagorako diru-laguntza emanen da hilabeteen: 0,30 euro kilometro bakoitza, joatea eta etortzea.

Garraio berezian bidaiatuz gero, trenez izan edo autobusez izan, txartelaren kostuaren %25 ordainduko zaie, eta txartelaren bidez egiaztatu beharko dute.

Laguntzak kalkulatzeko, familia unitateko kide guztien PFEZ aitopenen errentak batuko dira, eta familia unitateko kide kopuruaren artean zatituko.

PFEZren aitopena bere aldetik egiten duten seme-alabak ez dira familia unitateko kidezat hartuko.

Diru-laguntzen ordainketa:

Laguntzak emateko jakinarazpena ebatzi ondoren, laguntza ordainduko da, eginiko gastuaren eta espetxe-arduradunak emaniko bisitaren egiaztagiria aurkeztutakoan.

Araubide honetan ezarritako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, aurreko urteko Nafarroako KPIren arabera.

9. artikulua. Osoko Bilkura da ordenantza honetan aipatu deialdiaren oinarriak onetsi, argitaratu, zuzendu, luzatu edo deuseztatzeko organo eskuduna, baita diru-laguntzak ematea edo ukatzea erabakitzeke ere eta haien zenbatekoa zehazteko, bahar den batzordeak txostena egin ondoan.

10. artikulua. Diru-laguntza emateko deialdi bakoitzaren oinarri partikularretan ezarriko da eskabideak aurkezteko epea zein den.

Zuzeneko kontzesioak direlako epe zehatza ez duten diru-laguntzak direnean, eskabideak aurkezteko epea irailaren 30ean bukatuko da, urtero.

11. artikulua. Laguntzen eskatzaileek, eskabidearekin batean, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Programa zehatza eta guztirako aurrekontua, egin gogo diren jardueren arabera banatua, haietarako eskatzen baita diru-laguntza.

Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak

12. artikulua. Deialdiaren oinarriak onestean finkatzen diren irizpide berariazkoek gain, honako hauek jotzen dira diru-laguntzak emateko irizpide objektibo orokortzat:

- a) Jardueraren interes orokorra Olaztiko Udalarentzat.
- b) Biztanleriaren partaidetza aktiboa programa hauetan, eta jardueren eragina gizartean.
- c) Prestakuntza edo hezkuntza alderdiei mesede egitea, biztanleriaren bizi kalitatea hobetzea baldin bada ondorioa.
- d) Proiektua zer esparrutan garatuko den, bertako baldintzetara egokitzea gizarte, kultur eta besteren aldetik.
- e) Jarduerak Olaztiko herritarren eskura izatea eta iritzi publikoa sentsibilizatzen laguntzea.
- f) Proiektua edo jarduera gauzatzen boluntarioek parte hartzea.
- g) Antzintasuna Olaztiko erroldan.
- h) Antzeko jardueren urria.
- i) Oinarrizko kirolaren eta oinarrizko kulturaren sustapena.
- j) Laguntza ekonomikorik gabe nekez gauza litezkeen interes orokorreko jardueri laguntza ematea.
- k) Proiektuan ingurumenaren, gizartearen edo genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea.
- l) Antzintasuna eta eskarmentua antzeko proiektuetan.
- m) Eskatzailearen gaitasun teknikoa nahiz antolaketarako eta kudeaketarako gaitasuna.

13. artikulua. Dagokion informazio batzordeak eskaerak aztertuko ditu eta horren ondoan txostena aurkeztuko dio Osoko Bilkurari. Horrek ebazpena emanen du eta diru-laguntza onartuko, biltzen diren inguruabarrak azterturik, kasu bakoitzean zenbateraino eta zer ehunekotan laguntzen ahal den zenbatetsi ondoan. Arau okorra da jarduerendako diru-laguntzek, guztira, ez gaingitzea hartarako aurkeztu den aurrekontu osoaren %50. Gehieneko zenbatekoa deialdi bakoitzaren oinarri partikularrek adieraziko dute.

Onuradunen betebeharrak

14. artikulua. Hauek dira onuradunen betebeharrak:

-Diru-laguntza jasotzeko behar den portaera izan, xedea bete, proiektua gauzatu edo jarduera egitea.

-Organo emaileari edo, halakorik bada, entitate laguntzaileari frogatzea betebeharrak eta baldintzak betetzen direla eta diru-laguntza emateko edo jasotzeko arrazoi izan diren jarduera eta helburua gauzatu eta bete direla.

-Organo emaileak edo, halakorik bada, entitate laguntzaileak egin beharreko egiaztatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudun nazionalak zein europarrek finantzak egiaztatu eta kontrolatzeko egiten ahal dituztenak ere; bestetik, aurreko jarduketan ondorioz eskatzen ahal zaion informazio guztia ematea.

-Lagundutako jarduera finantzatzeko eskatu edo lortutako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea diru-laguntza eman duen organoari edo lankide den entitateari. Egoera hori jakin bezain laster emanen da haren berri eta, betiere, jasotako dirua zertan erabili den justifikatu baino lehen.

-Diru-laguntzak ematen dituen ebazpenaren proposamena egin baino lehen, zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.

-Egiaztatze eta kontrol ahalmenak erabili ahal izan daitezen, kontabilitate liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala ikuskaturik, onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritzako legeetan eta lege sektorialetan agindutako moduan, eta halaber, diru-laguntzak arautzeko oinarrietan eskatzen diren kontabilitate orriak eta erregistro berariazkoak edukitzea.

-Jasotako diruaren erabilerari buruzko frogagiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolaren xede izaten ahal diren bitartean.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aurreikusitako kasuetan, bildutako diru-laguntzak itzultzea.

15. artikulua. Entitate laguntzaileak, onuradunak eta diru-laguntzen xedearekin edo haren justifikazioarekin ikusteko duten hirugarrenak beharturik daude Udalaren kontrol organoen kontrol lana erraztera, baita kontrol organo eskudunek finantzen egiaztatze eta kontrolaren arloan egin ditzaketen gainerakoak ere, bereziki kontrolaren eta segimenduaren xedeko lokal eta dokumentazioetara sartzen uztea.

16. artikulua. Jarduera baterako diru-laguntzaren eskabidea aurkezte hutsak berarekin dakar ordenantza hau eta diru-laguntza emateko oinarriak jakitea eta onartzea.

17. artikulua. Ordenantza honetako betebeharrak eta aginduak ez betetzeak diru-laguntza itzuli beharra ekar dezake. Erabaki hori organo emaileak hartuko du, espedientea ireki ondoan. Hartan, zentro kudeatzailearen proposamen arrazoituarekin batean, bidezko diren txosten eta frogak aurkeztuko dira, baita onuradunaren alegazioak ere, halakorik bada. Erabakia hiru hilabetean hartu beharko da.

Justifikazioa eta kobrantza

18. artikulua. Deialdi honen aginduei jarraikiz emandako diru-laguntzak biltzeko, beharrezkoa da Udalean dokumentazio hau aurkeztea:

a) Egindako jardueraren memoria zehatza.

b) Eskabidea, entitateko buruak edo behar bezala egiaztatutako eskuordetza duenak sinatua, alkateari idatzia, diru-laguntzaren ordainketa eskatzeko. Bertan, kontu korrontearen zenbakia adierazi behar da, hartara transferentzia egiteko.

c) Fakturak, diru-laguntzaren zenbatekoa adieraziko dutenak.

d) Jarduerak sortutako gastuen zerrenda eta dokumentazio idatzia.

e) Beste entitate publiko nahiz pribatuek emandako diru-laguntzen zerrenda.

19. artikulua. Aurreko artikuluan aipatu fakturek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Jatorrizkoak edo kopia egiaztatuak izatea.

b) Diru-laguntza eman den urteko data edukitzea, edo aitzineko urteko laugarren hiru hilekokoak. Jarduera puntuala baldin bada, aipatu jarduerari dagokion datan.

c) Hartzailearen nortasun agiri nazionala edo lizentzia fiskalaren zenbakia edukitzea.

d) Etxe hornitzailearen zigilua eta izenpea edukitzea.

e) Eskabidearekin batean aurkezturiko aurrekontuarekin bat etortzea.

20. artikulua. 18. artikuluan aipatzen diren frogagiriak eskabidearekin batera aurkeztuko dira. Behar den batzordeak aztertuko du espedientea, eta onesteko proposatuko dio Osoko Bilkurari. Ordaintzea, bidezko bada, Alkatetzari dagozkio; betiere, egin beharreko gastua bere eskumenen barrenean badago. Dena dela, beretako gordeko du diru-laguntza egiazki egin diren gastuen mugaraino murriztea proposatzeko ahalmena.

21. artikulua. Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, hari buruz uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatuari jarraituko zaio.